

KOSTU EGITURA

IBIS enpresarekin zerikusia duten kostu guztiak ordaitzeko bankuan banku korrante bat sortu genuen, enpresaren izenean. Edalontziak egiteko erabilitako plastiko berrerabiliaren prezioari dagokionez, plastiko tonelada bat erosteak 100€-ko kostua du eta plastiko kantitate horrekin 100.000 edalontzi egiteko aukera dugu. Honetaz aparte, edalontzietako diseñuak egiteko erabiltzen den tinta akrilkoak ere ez, ez du oso prezio altua izaten, baina ez daude beharrezkoak diren kantitateak erosteko haina bote handiak, beraz, kantitate askotan erosteko beharra dugu.



Langileen soldatei dagokienez, oraingoz, enpresak egin duen bidearekin nahikoa izan dugu gu hiruren lanarekin. Hala ere, enpresaren arrakasta ikusita, geroz eta langile gehiagoren beharra izan beharko dugu. Horren ondorioz, langile gehiago

kontratatuko ditugu. Gure intentzioa lanean ibiliko diren langileen soldata gu hirurenarekin berdindua izatea da. Behar diren altzariei dagokienez, ohiko lokal batek izten dituen altzarien beharra dugu, ez besterik. Eta makinaren prezioari dagokionez, edalontziak egiteko prozesuan makina ugari behar dira eta makina hauen prezioak nahiko altuak dira. Adibidez, plastikoa moldatzeko makinak, edalontziak dekoratzeko makinak...

